



Uda bete jai, Andoaingo auzoetan

Karrikakoak amaitu berritan, jaiek jarraipena izango dute Etxeberrietan, Goiburun eta Buruntzan. Abuztuaren amaieran, Sorabillan / 4-11

AIURRI

Antzerkia, Andoaingo kaleetan

Ostiralean hasi eta igandera bitarte, Uda Giroan zikloaren baitan, kale antzerki emanaldi bana izango da / 14-15

Egaperen eraikin berria, eragileen artean hizpide

Aspaldi amestutakoa betetzen ari da: hasi dira eraikuntza lanak. Jorge Segurado Urrietako alkatearen eta Azkorte Guraso Elkartearen balorazioa jaso du Aiurri astekariak / 2-3



Beñat Salbador eta Iñaki Lopez de Munain nagusitu dira Goiburuko pilota-txapelketan / 12



Eguraldi aldaketa ez zen oztopo izan, Karrika auzoan. Egitarau osoa bete ahal izan dute / 6-7

Uda zinema kalean: hirugarren eta azken emankizuna, ostegun honetan, Andoaingo Goikoplazan / 15

Aiurriko albistegiak webgunean izango du jarraipena. Datorren astekaria irailaren 5ean izango da

“Gauzak ondo bidean, 2027ko udan prest izango da eraikin berria”

JORGE SEGURADO URNIETAKO ALKATEA

Egape Ikastolako eraikin berria martxan da eta, alkatearen ustez, esfortzu kolektibo handia izan da, inplikaturako eragile guztien arteko lankidetzari esker lortua



Egape Ikastolako eraikin berriaren eraikuntza-lanak abiatu dira. Jorge Segurado alkatea bertan ageri da. UDALA

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

DBHko eraikina martxan jartzeko lanak hasi dira. Zein da zure lehen balorazioa?

Balorazioa positiboa da, oso pozik gaude. Urte luzeetako lanaren ondoren, fase erabakigarri batean sartu gara. Obraren hasiera ikasle, irakasle eta gurasoentzat mugarri bat da, azken hamarkadetan herrian egin den apustu garrantzitsuenetarikoa. Belau-naldi berriei etorkizuneko proiektua bermatu behar diegu Urnietan; bertan hazi, hezi eta bizi daitezen nahi dugu. Horretarako, ezinbestekoa da gure ume eta gazteek herrian kalitatezko hezkuntza publikoa jasotzeko eraikin eguneratu eta modernoa izatea.

Zeintzuk dira hurrengo pausak? Hezkuntza Sailaren ardura peko eraikuntza-lana da, baina Udalak zer nolako jarraipena egingo du?

Hezkuntza Sailaren ardura da obra gauzatzea, baina gu gainean egongo gara obra normaltasunez garatu dadin. Urnietako Udala bidelagun izaten ari da, behar den kudeaketa administratibo guztietan laguntzen ari gara, egutegia zorrotz bete dadin, eta lanak ahalik eta azkarren amaitu daitezke. Bi urte inguruko iraupena izatea aurreikusten dugu, beraz, gauzak ondo bidean, 2027ko udarako prest izango da. **Eraikin berriarekin, mezu indartsu bat ematen zaie Urnietako belau-naldi berriei.**

Zalantzarik gabe. Eraikin berria ez da bakarrik azpiegitura bat; etorkizunarekiko konpromiso bat da. Belaunaldi berriei esaten diegu hemen, Urnietan, hezkuntzaren aldeko apustua sendoa dela, eta nahi ditugula ikasleak kalitatezko baldintzetan hezi, beren garapen pertsonal eta akademikoa bermatzeko. Guk herriarentzat eta herritarrentzat egiten dugu lan, ahalik eta zerbitzu onenak izan ditzaten, eta DBHko eraikina lehentasuna izan da guretzat, funtsezko proiektua Urnietaren etorkizunarentzat. **Bada sentsazio bat eskolako komunitatean: denbora gehiegi igaro da egitasmo hau errealitate bilakatu den arte. Zer duzu esateko?**

Ulertzen dugu sentsazio hori. Ez da prozesu erraza izan, hainbat oztopo gainditu behar izan dira. Baina beti saiatu gara elkarlanetik bideak irekitzen. Adibide gisa, kontuan izan behar da lur pribatuak direla, eta administrazioaren eta hirigintza-garapenen epeak luzeak eta oso garantistak direla. Prozesua segurtasun eta legezko berme guztiekin gauzatzea dagokigu. Ahalik eta gehien arindu eta laburtu ditugu epeak, baina, prozedura guztiak zorrotz bete-ta: Urnietako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartu dugu, Babiloniako Plan Partziala egin eta onartu da, lurren eskuratzeko, urbanizazio-proiektua egin dugu, lursailaren lagapena kudeatu... Bien bitartean, paraleloan, Hezkuntza Sailak proiektua idatzi eta beharrezko aurrekontu-finantzaketak ere bermatu ditu. Esfortzu kolektibo handia izan da. Inplikaturako eragile guztien arteko lankidetzari esker atera da aurrera. Eskerrak eta zorionak eman nahi nizkieke urte hauetan guztietan proiektuaren alde lan egin duten guztiei.

“Institutu berri bat egiteko 5.000 m²-ko lursaila gordetzea proposatu da. Lursaila Egape Ikastolaren ondoan legoke, Babilonia ondoan”. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritzeko prozesuan jaso zen, 2005eko maiatzean Aiurrik argitaratu zuen artikuluan. Zergatik igaro dira horrenbeste urte?

Aipatzen duzun Plan Orokorra 2014an onartu zen, EAJ-PNVren eta Pagola alkatearen bultzadari esker; eta tamalez ez zuen udal ordezkari guztien babesa jaso. Urnietan eraldaketa urbanistikoko garrantzitsua bizitzen ari da, eta horretarako HAPOa funtsezkoa tresna izan da. Azken urteetan kiroldegia eraberritu da, irisgarritasuna hobetzeko hiru igogailu eraiki dira, Elkar-teen Etxea ahalbidetu da, mendekotasuna duten pertsonen laguntzeko iraupen luze eta etxebizitzak egin dira, Plazido Muxika plaza estali da eta beste horrenbeste egingo da Teresa Amuategi parkearekin. Lasarte-Oriarako errepidea ireki da, skate park, eta pump track pistak egin dira, etxebizitza berriak altxa dira, garapen berriak iristear daude, Idiazabal kalearen bulebarizazioan pausoak eman dira, Arantzubín Arrapala mekanikoak eraikiko dira, eta orain DBHko eraikina errealitate

egingo dugu. Urnietan aurrera egiten eta modernizatzen ari da. Gure herria maite dugu eta beti urnietarren bidelagun izango gara. Urnietaren aurrerabidea sustatuko dugu, bertan bizi-proiektua aurrera eramateko gero eta leku atseginagoa izan dugin.

Urnietan eta Eusko Jaurlaritzan, salbuespenak salbuespen, EAJrena izan da aginte-boterea. Hori ez al da abantaila halako tamainako egitasmoari dinamismoa emateko? Hezkuntza Sailak historikoki kolore anitzetako aginteak izan ditu, EAJk adostasunaren bidez, koalizio gobernu sendoen bidez gobernatu baitu. Dena den, hezkuntza lehentasunak ezin dira interes alderdikoien menpe egon. Guk herri guztientzat gobernatzen dugu eta dagokion erakundearekin elkarlan instituzional leiala bilatuko dugu beti, izan kolore bat ala beste bat. Urnietari dagokionez, Hezkuntza Sailaren jarrera eta konprometua bikaina izan da, hartu-eman oso ona eta gertukoa izan dugu eurekin, bai maila teknikoan eta bai politikoan. Esker oneko hitzak baino ez ditut.

Eskolako zuzendaritza, guraso elkarte eta Urnietako Udala. Hiru aktore nagusi zaudete herrian. Zer nolakoa izan da solaskidetzaren prozesu honetan?

Guztion helburua berbera zen, eta uste dut denok, bakoitzak bere esparruan, norabide berean lan egin dugula. Eskolako zuzendaritzaren inplikazioa eta guraso elkartearen ekarpena erabakigarriak izan dira. Proiektuaren jarraipena egiteko lan-mahai bat sortu genuen, komunikazioa eta informazioa modu jarraituan elkarbanatuz. Elkar-lan horren adibide da parke inklusiboa: hura diseinatu eta bideratzeko gai izan gara, eta orain Udalak eraikiko du.

Aurrera begira, zein ikasturtetan izango dute aukera urnietarrek eraikin berrian ikasten hasteko?

Dena ondo badoa, lehen esan bezala, 2027ko udarako amaituta egon beharko luke. Espero dugu obra normaltasunez egitea eta aurreikusitako epeetan eraikina errealitate bihurtzea. Bikaina litzateke 2027-2028 ikasturtea eraikin berrian hasi ahal izatea. Jarraipen zehatza egingo dugu, eta Urnietaren etorkizuna eraikitzen jarraituko dugu.



Guraso Elkarteko kideetako batzuk eta, haiekin batera, Amaia Amutxastegi zuzendaria eta Manu Marias zuzendari ohia. AIURRI

“Indar pixka bat egin izan ez bagenu, ez litzateke eraikina martxan jarriko”

AZKORTE GURASO ELKARTEA URNIETA

Abian dira Egape Ikastolaren Bigarren Hezkuntzako institutuaren obrak. Urte hauetan guztietan, eraikin berriaren alde aritu da lanean Guraso Elkartea

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Mende laurden egin behar da atzera, gutxi gorabehera, Egape Ikastolako Bigarren Hezkuntzako eraikina berritzeko lehen proposamenarekin topo egiteko. Harrezkero, joan-etorrian ibili da auzia, burokraziaren korridorean. Hala, egoeraren larritasunaz jabetuta, buru-belarri aritu da lanean hezkuntza-komunitatea urte luzez, tartean, Azkorte Guraso Elkartea. Egitasmoak argia ikusi berri duen honetan, hitzordua egin du Aiurri astekariak elkarteko kideekin.

Orain gutxi iritsi da albistea: behin kontratua sinatuta, uda etortzearekin batera ekin zaio DBHko erai-

kinaren obrari. Nola jaso zenuten albistea?

"Lortu dugu!", pentsatu genuen. Helburu batengatik lanean izan gara eta merezi izan dute urte hauetan guztietan pasatuko gorabeherak, azkenean, kalitatezko zentro bat edukitzeko aukera izango dutelako herriko gazteek. Gauza asko behar ditu Urnietak, baina lanik egin gabe, ez dago lorpenik. Edo denak inplikatzeko gara, edo akabo.

Prozesu luzea izan da, eta oso nekatuta amaitu dugu, baina egia da gure artean talde oso ona osatu dugula. Nork bere ideiak izan arren, helburua oso argi genuen denok. Zuzendaritzarekin, Amaiarekin (Amutxastegi zu-

zendaria), talde bikaina osatu dugu, eta alde horretatik, erraza izan da elkarrekin lan egitea.

Eraikin berriaren auziari lehenbait lehen aterabidea emateko asmoz, zuotako asko elkartean izan zarete lanean, nahiz eta zuen seme-alabek Egape Ikastolako ibilbidea amaituta eduki. Zerk bultzatuta?

Indar pixka bat egin izan ez bagenu, ez litzateke eraikina martxan jarriko. Gainera, susmoa dugu agintariekin jada kontuan zutela Guraso Elkarteko kideak normalean lau urtez egoten direla, eta behin elkartea utzita, gaia ahaztuta gelditzen dela. Hori dela eta, puntu garrantzitsua izan da guk lanean jarraitzea, nahiz eta gure seme-alabek es-

kola-ibilbidea amaitu. Konstantziaz jardutea izan da gakoa.

Seme-alabentzat ere eredugarria izan da. Gauzak lortzeko lan egin beharra dagoela ikusi dute, hemen ez baita ezer oparitzen.

Udal ardurak dituztenak konturatu behar dira lan eginez aurrerapausuak ematen direla. Guraso-talde honek zazpi urte daramatza lan-boluntarioan, nahiz eta orain dela hogeita piku urteko zerbait izan.

Nola izan da konpromisoari hainbeste denboran eustea, orain arte, begi-bistako aurrerapausorik ikusi gabe?

Bilera batzuetatik etsituta atera izan gara, inpotentzia handiarekin, esanez "ez dugu honetan jarraituko, nekatuta gaude". Jarraitu eta jarraitu egin behar da, bestela... Baina bai, oso gogorra izan da.

Zerk sostengatu zaituzte emozionalki arrakasta-berme argirik gabeko prozesuan, urte hauetan guztietan?

Gazteekin gogoratzeak. Ez baldin badugu beraiengatik borrokatzen... Arraroa da, era berean, ez? Beraiek, gazteek ez bultzatzen izana ezer ere ez. Era berean, herritarren aldetik inplikazio handiagoaren falta sumatu dugu. Egape komunitate handia da, ikasle asko dago, eta kontu honetan, gutxi batzuk egon gara. **Zuen mezua argia izan da urte hauetan guztietan: eraikinaren baldintza eskasak eta irisgarritasun eza ikusita, Urnietan ez zaie bizilagun guztiei oinarritzeko eskubide bat bermatzen, hain justu, herrian hezkuntza publikoaren bidetik jarraitu ahal izatearen eskubidea.**

Luizia egon zen, zirkuitulaburra, lehenago... Ez da ezer gertatu, gerta zitekeen guztirako. Anbulantzia batek ezin du sartu, adibidez, edo gurgildun aulki batean dagoen pertsona batentzat ez da irisgarria. Helduen esku dago gazteei eroso ikasteko baldintzak jartzea, izan ere, euri egun batean ez dago prefabrikatu horretan klasea ematerik. Gutako batzuk Egape Ikastolan ikasitakoak gara. Bada, gure garaian ere beste eraikin bati buruz hitz egiten zen. Urteak pasa dira, gaur arte.

Zein izan da urte hauetan guztietan udal ordezkariarekin eduki duzuen harremana?

Ez da txarra izan, errespetuzko harremana izan da. Egia da bilerak egiten hasi ginenean, garrantasun eza zegoela tartean:

nor bere aldetik biltzen zen, hasiera batean, gurasoak, batetik, eta zuzendaritza, bestetik. Mezu diferenteak ematen zizkigutela konturatzen ginen. Denak batera biltzen hasi ginen, orduan, guztien artean gauzak mahai gainean jartzeko. Detaile askok arreta deitu digute.

Oposizioari begira, asko lagun du digu. Eskuetatik joaten zaizkigun gai asko daude, eta laguntza handia izan dugu.

Eta, Eusko Jaurlaritzarekin?

Herriko mugimendu ezaren aurrean, Gasteizera jotzea erabaki genuen. Eskutitza idatzi genien, eta ikastetxea ikustera etortzeko gonbidatu genituen Hezkuntza Saileko ordezkariak. Ona izan da harremana: idatzi izan diegunean, beti erantzun digute. Baina "entzun nahi duguna esan digute", ideia horrekin gelditu izan gara.

Amaitutzat eman duzue zuen taldearen ibilbidea. Atzera begira jarrita, zein zaporez itxiko duzue etapa?

Gauza positiboekin geldituko gara: eskolak ikastetxe berria izango du, guztia elkarrekin egongo da, txikienek ere erabiliko dutelako. Gure artean izugarritzko taldea egin dugu, gutxi ezagutzen genuen elkar eta, azkenean, adiskidetasuna sortu da. Zuzendaritzarekin ere, oso ondo: beraiek eskatutako gaia zen, baina beraiek bakarrik ezin zuten mugitu. Azkenean, guraso gisa, oso gustura egon gara Egape, daukan proiektuarekin. Modu batera edo bestera, bueltan zerbait itzultzeko modua bada ere.

Egun, ikasleen guraso diren elkarteko kideek hartuko al dute auziari erantzuteko arduraren lekukotza?

Hor egongo gara gu ere, bigarren planoan. Delegatu egingo dugu erantzukizuna. Oso gainean egon beharra dago; esaterako, egin dako bilera guztiak guk eskatu dizkiogu udaletxeari. Bilera bat bukatu eta hurrengoaren data jartzen genuen, bestela, bagenekien ez zela emango.

Obrari ekin diote azken asteotan. Zer dator orain?

Bi urteko epeaz hitz egiten dute. Espero dugu denbora-tarte horretan, jada, eraikina eginda egotea, baita parke inklusiboa ere. Gainean egongo gara, ez dugu utziko. Garrantzitsua da herriak ikustea hondeamakina sartu dela, egiazko bihurtuko dela.

Manttale elkartearen irteera eta, ondoren, kantujira saioa

Oporraldiaren aurreko azken kantu saioari ekin aurretik, mendi irteera egin zuten

Erredakzioa URNIETA

Besabitik Adarrara bidean dagoen bordari zor dio izena Manttale elkarteak. Aspaldiko asmoa bete zuten joan den ekainaren 27an. Irteera antolatu zuten eta

bertako aterpean hamaiketako egin zuten. Hara iristerako, gainera, inguru guztia garbi eta txukun topatu zuten, Manuel Maioz taldekideak aurreko egunetan egindako lanari esker.

Behin txangoa bukatuta, Etena elkartearen egin zuten hitzordua bazkari batekin egunari jarraipena emateko asmoz. Mahaiaren bueltako saioarekin ezarriak berotuta, kalera atera ziren, ohiturak agindu bezala, hilabeteko azken ostiraleko Kantujirari ekiteko.

Modu horretan eman zioten itxiera ikasturteari. Oporraldiaren ostean, atsedean hartuta, jailetako hitzordua antolatzea dute jomuga.



Elkarteko hainbat lagun Manttale bordaren kanpoaldean. MANTTALE

POSTONTZIA

EH BILDU URNIETA

Gure iparrorratza herritarrek dira

Gure iparrorratza herritarrek dira: haien beharrak eta egoera kontuan hartuta lan egiten dugu. Udalgintza, herritar guztien beharrak entzun eta haiekin elkarlanean arazoak konpontzeko lan egitea da. Alegia, behetik gora egin beharreko prozesua da: herritarren kezka erakundeetara eraman eta arazoak konpondu. Baina kontrako bidea egiten du Udal Gobernuak. Bigarren alderdia gara, 5 zinegotzi ditugu, baina erabakiak gure bizkar hartzen dituzte. Lan taldeetatik kanpo uzten gaituzte, eta EAJ-PSE-EE-ek erabakiak hartu ondoren jakinarazten dizkigute. Hau da, herritarren zati handi bati entzungor eginda lan egiten dute.

Bi urte hauetan Urnietan dauden arazoak mahai gainean jarri ditugu eta, gure presioari esker, gauza asko

konpondu dira. Landu ditugun gai batzuk dira honako hauek:

- Zaborraren kudeaketa kaskarra herrigunean eta landagunean. Birziklatzearen aldeko kanpaina bat eskatu dugu. Horrez gainera, altzarien eta tamaina handiko hondakinak uzteko gune baten falta dago herrian.
- Zabaletako kamioien gatazka erdigunean jarri dugu: auzotarrei entzun diegu, haien mozioa babestu eta Batzar Nagusietara bideratu dugu. Haien borrokari eta hitzari oihartzuna eman diegu.
- Harrobitik Azkorterara doan herri bidean gertatutakoa oso larria da. Aizkibel enpresak egindako bidearen aurka auzotarren sinadura bilketa jaso dugu. Bideak %30eko malda du, eta ez da

erabilgarria edozein autorentzako, proiektu falta eta aurrekontu faltagatik, Gobernu-taldeak kudeaketa-planean zuen permutaren aurka azaldu ginen. Guk bi alternatiba jarri genituen mahai gainean konponbide bat bilatze aldera.

- Amiantoa kentzeko legea bete dadin presioa egin dugu, 2025eko aurrekontuetan sartzeko exekutatzeko. Herritarren osasunak ardura politikoa eskatzen du.
- Euskara ez da soinean emateko txapa bakarrik, euskara gure ondarea da eta aktibismo beharrean dago. Euskaldun egiten gaituena da eta, horregatik, hitz egiten dugun bitartean indartuko da.
- Mugikortasun-plana: gure planteamentua integrala izan da, eta ekarpenak egin

ditugu. San Juan Plaza peatonalizatzea horrek San Juan kalean eta Urraka auzoan sortuko dituen eragozpenak kontuan izanik, proposatu dugu Arkabe kalea bi norabideetan ahalbidetzea eta aparkalekuak egiteko beharra.

- Babilonia gunea garatzeko ekarpenak egin ditugu: Zabaleta auzoarekin txertatzea, etxebizitzak paraleloki eginda, elkarren arteko lotura bide batekin, aparkalekuen beharra eta arnas gunea berdea biribilgune berriaren ondoan. Baina ez dituzte kontuan izan: aparkalekuak kenduko dituzte Zabaletan eta, ondorioz, auzoan aparkatzeko zailtasunak izango dira.
- Batzar irekiak egin ditugu 4 hilabete behin herritarrei entzuteko eta gure lanaren

berri emateko. Uztailak 22an egingo dugu hurrengo batzarra.

- Etxebizitza eskubidea: Gure kezka azaldu dugu hasieratik. Etxebizitzaren egoeraren inguruko azterketa eskatu dugu (2024ko aurrekontuetan 2023ko abenduan), Urnieta gunen tentsionatu izendatzeko. Gobernu taldeak ez zuen onartu, eta herritarrek sufritzen dituzte ondorioak; Babilonia eremuan 340 etxebizitza egingo dira, baina ez herriko gazteetan pentsatuz.

EH Bilduk egindako lanaren laburpen txiki bat besterik ez da. Udal Gobernuaren politiken ondorio zuzena dira arazo horiek: goitik behera gobernatzen dute, herritarren zati handi baten kezkei eta arazoei erreparatu gabe.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Ebeze ebeke harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idaizkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocío Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietan).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

BABESLEAK:



AIURRIKO HARPIDEDUNAK

ZIURTAGIRIA:





Hirschi eta Alaphilippe, iaz, helmugara iristen. SPRINTCYLING

Birritan igaroko da Klasika Andoaindik eta Urnietatik

Abuztuaren 2an Donostiako Klasikaren edizio berria izango da eta lehen kilometroetan eskualdetik igaroko da

Erredakzioa ANDOAIN

Frantziako Tourraz gozatzen ari gara, egunotan eta, laster, goi mailako txirrindulariak eskualdean barrena ikusiko ditugu. Abuztuaren 2an izango da Donostiako Klasikaren edizio berria, eta tartean izango dira Frantziako Tourrean nabarmendu diren hainbat tropelkide.

211,4 kilometrokoa izango da lasterketa eta, ibilbidean, sei mendate igo beharko dituzte. Aurten, goizeko 11:00tan Añorgatik abiatu eta Hernani aldera joko dute. Gauzak horrela, minutu gutxira Urnietan eta An-

doainen barrena igaroko dira. Andazarrate, Urraki eta Alkiza igo ostean Aduna aldetik iritsiko dira berriro Andoainera. Eta, handik, Urnietara. Bigarren igaraldia 14:30ak aldera izango da. Azken txanpan Jaizkibel, Erlaitz eta Murgil igo beharko dituzte Donostiako Boulevardera iritsi aurretik. Arratsaldeko 17:00etarako proba amaitzea espero da. Iaz, UAEko Marc Hirschi gailendu zen. Gertu izan zituen Julian Alaphilippe (SOQ, 1) eta Lennert Van Letvelt. Talderik onena UAE Team Emirates izan zen.



UDALA

Puzgarriak Urnietako igerilekuan

Aurreko urteetan bezala, udal igerilekuan puzgarriez gozatzeko aukera izango da. Badu berezitasuna: uraren gainean jartzen dituzte eta, ondorioz, jolas dibertigarria bilakatzen da haur eta gaztetxoentzat. Lehen aukera datorren uztailaren 26an izango da, 10:30 eta 13:30 artean. Bigarren data abuztuaren 30a izango da.

Zaldundegitik Aranzubirainoko esku-hartzea

Idiazabal kalearen bulebariazioa bigarren fasera iritsi da. Aurrekontua 671.829 eurokoa da. Bigarren fasea lau zatitan banatuko dela iragarri du Urnietako Udalak, "herritarrei ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko". Bada, hasteko, Teresa Amuategi parkearen azpian dagoen gunean esku hartuko da: espaloiek hiru metroko zabaleraz izango dute, gutxienez; oinezkoiei lehentasuna emango zaie, baina, aldi berean, ibilgailuen erabilera egokia bermatuko da; bestalde, ibilgailuak linean aparkatu ahal izateko hainbat espazio ahalbidetuko dira.

Eraberritze-lanak, Urnietako Udal pilotalekuan

Astelehenen hasita, eta bi astez, itxita egongo da Udal Pilotalekua bertako azpiegiturak hobetzeko egingo diren lanak direla eta: batetik, pintaketa-lanak egingo dira; eta, bestetik, herriko kanpo argiteriarekin egin bezala, LED sistemara aldatuko du Urnietako Udalak argiteria, kontsumo energetikoa murrizteko xedez.

Udan, bestalde, erabilera libreako izango da pilotalekua. Honako hau izango da, ordutegia, egunotako konponketa-lanak amaituta: 09:00-21:00.

Igerilekuko lantaldea handitzea erabaki du Urnietako Udalak

Uda beroa izaten ari da eta Urnietako igerilekua urnietar eta andoaindar askoren aukera bilakatu da. Udalak emandako datuen arabera, ekainaren bigarren hamabostaldian 14.108 sarrera zenbatu ziren: hala, bisita horien % 80 inguru urnietarrak izan dira eta % 14,4 Andoaingoak. Horren aurrean, Udalak langile-kopurua handituko duela jakinarazi du, "zerbitzua ahalik eta modurik onenean eta baldintzarik egokienean eskaintzeko". Bestalde, gizelegez jokatzeko deia luzatu du udal erakundeak.



Udal gobernu-taldeko kideak, batzar aretoan. AIURRI

Andoaingo Udal gobernu-taldearen agerraldia

Azken bi urteetako lana emankorra izan dela uste dute, hainbat gairi aterabidea eman diotelako

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

"Iritsi gara agintaldiaren erdialdera. 2023ko ekainaren 17an hartu zuen Udal gobernu honek Andoaingo Udalaren gidaritza, eta bi urte igarota, egindako lanarekin asebeteta gaudela nabarmendu nahi dugu. Bidea egiteke dago oraindik, baina orain artekoa mamitsua, sakona eta emankorra izan dela uste dugu". Hitz horiekin abiatu zen EH Bilduko alkate eta Andoaingo Udaleko gobernu-taldeko buru Andoni Alvarez Leteren agerraldia.

Pertsonak, azpiegiturak eta herrigintza. Hiru lehentasun horiek dira gobernu-taldekoentzat premiazkoenak. Politika egiteko beste eredu bat badela sinetsita daude, eta horri jarraia aritu direla adierazi zuten agerraldian: "Ko-gobernantzarekin konprometitu gaude, horretan sinesten dugu, eta horren erakusle dira orain arte erdietsitako akordio eta adostasunak, gainerako alderdi politikoekin eta baita herriko eragile zein taldeekin ere". Gogoan izan dute agintaldiaren hasieran iragarri zituzten 73 neurriak. Atzera begira jarri eta kontuak atera dituzte: "Lau urtekoa abiatzearekin batera 73 neurri osatutako gobernu-programa aurkeztu genuen. Agintaldi erdira iritsita esan dezakegu neurrien %40 beteta dugula, %45 martxan eta bidean dela eta %15 garatzeko fasean. Alegia, hartutako konpromisoen %85 bideratu dira agintaldiko

bi urte hauetan". Zehaztasunean sartuz gero, zerrenda luzea hizpide hartu zuten udaletzeko pleno-aretoan egindako agerraldian: "Nabarmentzekoak dira N-1 eta A-15 lotuneari irtenbidea emateko abiatutako prozesua, herri osoa asfaltatzeko egindako lanak, herriko hainbat aparkalekutan egin diren handitze eta txukuntze-lanak, ikastetxe guztietako kirol-eremuak asteburuetan zabaltzeko izenpetutako akordioa, Eskola-Kirola bateratzeko eta indartzeko eman diren urratsak, Andoaingorren berrabiaratzea eta eguneratzea, herrian gune estaliak eraikitzeke azterlanaren bideratzea, herria dotoretzeko emakume muralistek egindako lana, Kultura Mahaiaaren eraketa, Udalen berrantolaketa eta abar".

Eta alkateak poz berezia agertu duela aitortu zuen abian jarri diren beste hainbat neurriekin: Zaintza planaren osaketa, herrira bizitzera etorri berri direnei ongi-etorria emateko egitasmoa, lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantzaren eguneraketa, herriko kale eta udal eraikinak irisgarri bilakatzeko egokitzapenak... Etorbizunean dimentsio handiko egitasmoak heldu nahi diete: Allurralde Kiroldegia handitze-lanak, kultura lokalen azterlana eta Udal Liburutegi berria martxan jartzeko aurre-lanak. "Bi urte ditugu oraindik aurretik, lanean gogor jarraitzeko".



Jai Batzordeko kideak, ostiral arratsaldean, jaiari hasiera eman berrikan. AIURRI

Laino eta ekaitz guztien gainetik, jaia gailendu zen Karrikan

Eguraldia beroa izan arren, zeruari begira izan ziren Karrikako jaietan. Eta ekaitz eta laino guztien gainetik, jaia nagusitu zen. Ostiral gauean, ekaitz handi samarra izan arren, aurreikusitako egitarauari eutsi zioten

Erredakzioa ANDOAIN

Ez dira gutxi Karrikako jaietan antolatutako hitzorduak eta, asteburua igarota, antolatzaileak pozarren egon daitezke: hitzordu guztiak egin ahal izan dira.

Izan ere, eguraldia kezka-iturri izan zen asteburuan. Ostiral gauean hasita: ordubete pasatxo atzeratu zen kontzertua, baina itxaronaldiak merezi izan zuen. Festazaleek gozatu ederra hartu

zuten Barrena taldearen emanaldian. Igandean Karrikan klasiko den ekitadi-sorta antolatu zuten: Sagardo dastaketa, toka txapelketa eta play-back emanaldia.

Rock ekaitzaldia, ostiral gauean



Barrena taldea, Karrikako emanaldia amaitu berrikan. AIURRI

Kontzertua Barricada taldearen bertsioak egiten dituen Barrena taldeak ikusmina piztu zuen festazaleen artean. Alabaina, emanaldia hasteko orduan, lehertu zen ekaitza. Ez zuten horregatik atzera egin eta, beranduago, bertsio ugari egin zituzten.



Diego Barragan eta Fernando Martin, irabazleak. AIURRI

Mus-txapelketa Diego Barragan eta Fernando Martin dira aurtengo Karrikako Mus Txapelketako irabazleak, finalean Sergio Garcia eta Dabid Manterola gainditu ostean. Igandean jokatu zen, bazkalostean.



Nekane Etxeberria, toka-txapelketako irabazlea. AIURRI

Toka-txapelketa Jaietako hitzorduen artean, toka-txapelketa sagardo-dastaketarekin batera antolatzen dute. Aurtengo emakumezkoak izan dira protagonista, eta haien artean Nekane Etxeberria izan zen onena.

w w w . a i u r r i . e u s

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



KARRIKAKO JAIK
Atal berezia webgunean



Larunbat arratsaldean, dantza-tailerra antolatu zuten. AIURRI



Toka-txapelketa, igande eguerdian. AIURRI



Sagardo-dastaketa, igande eguerdian. AIURRI



Sagardo-dastaketara herrikide ugari hurbiltzen da. AIURRI



Urtero bezala, haur eta gazte ugari igotzen zen oholdza gainera, Got Talent Karrika eta play-back saioetara. AIURRI



Play-back saioan hainbat helduk parte hartu zuen. AIURRI



Igande arratsaldean, lagun ugari elkartu zen jai eremuan. AIURRI



Zutik, Joxe Antonio Gutierrez *Guti*, Toñi Lopez, Asun Baztarrika eta Joxean Otaño. Eserita, Luisa Aguado, Nika Murillo, Delan Irazu eta Iñigo Loiarte, Kotoi elkartean solasean jardun ostean. AIURRI

Leizaran eskubaloi-taldea omenduko dute Etxeberrietan

la mende Erdiko ibilbidea egin duen Leizaran eskubaloi klubari egingo diote aitormena Etxeberrietan. Kluba omentzeko arrazoiak hizpide izanik, Etxeberrietako Jai Batzordeko eta Leizaran klubeko ordezkariak Kotoi elkartean bildu dira berriki

Xabier Lasa ANDOAIN

Delan Irazu, Nika Murillo eta Luisa Aguado azaldu ziren Jai Batzordetik, eta Joxe Antonio Gutierrez Guti, Toñi Lopez, Asun

Baztarrika, Iñigo Loiarte eta Joxean Otaño eskubaloi taldetik.

Irazuk, aitortza-ekitaldiaren zergatia azaldu zuen lehenbiziko eta behin, Kotoi elkartearen solasean.

saldian. “Aspaldi, 2008an, erabaki genuen herriko kirolari bat edo kirol talde bat omentzea, Roberto Cabrejas kros memoriarekin batera. Eta horretarako,

gizonezkoen futbola ez zen beste kirolei erreparatzea komeni zela uste izan genuen”.

Roberto Cabrejas ezagutu genuenok, badakigu sekula ez zuela galdu jatorri herrikoia nahiz eta altuera jauzian bost aldiz izan zen Espainiako txapelduna eta Moscuko 1980ko Olinpiadetan parte hartu, eta jakitun gara amorruz, berpiztu eta lurpetik altxako litzatekeela ikusiko balu futbolarekin segitzen dugula tematuta”.

Irazuk aitortu zuenez, ez dute arau hori bete urte guztietan, “baina saiatu gara, eta horrela, boxeolariak, emakume futbolariak, pilotariak, ziklistak, atletak... hartu ditugu gogoan”.

Andoaingo herriak kirolari handiak eta kirol askotan izan dituela gogorarazi zuen Irazuk, “eta horietako asko ahaztuta dauzkagu. Etxeberrietako urteroko omenaldi horrek oroimena freskarazi die herritar askori, eta, beste batzuri, berriz, agerian utzi die zeukaten ezjakintasuna”.

Leizaranen ibilbide oparoa

Etxeberrietako Jai Batzordeko kideek adierazi zutenek Kotoiko solasaldian, “Leizaran klubak,

kasik 50 urtetan, herriko gazteak kirolean hezi eta trebatu ditu, eta txalotzeko ibilbidea egin du benetan”.

Gaur egun, Leizaran sendotasun handiko kirol taldea bilakatu da; izugarri hazi da azken urtetan, eta hala berresten dute zenbakiek: 265 jokalaria (15 taldetan lehiatzen), alebinen eskola sortu berria; 40 entrenatzaile; 30 bat lagun zuzendaritza lanean edo laguntzaile gisa. Bestalde, denboraldian barrena torneo bereziak antolatzen dituztenean ere, 90 boluntario mobilizatze gaitasuna badaukala erakutsi izan du Leizaranek.

Azken urtetan, denboraldiari hasiera emateko Allurralde kiroldegian egin izan dituzten aurkezpen ekitaldi jendetsuak ikusi besterik ez dago, jabetzeko adin, talde eta ardura desberdinetako kideen artean dagoen armonia ona.

Jose Antonio Gutierrez Guti zuzendaritza batzordeko kide izan da sorreratik, eta poza nabaria zuen bere aurpegian, Kotoi elkartearen solasaldian: “1979-1980ko denboraldian sortu genuen mutilen taldea, eta hurrengo denboraldirako senior mailako



Etxeberrietako Jai Batzordekideak eta Leizaran eskubaloi taldeko kideak, Kotoi elkartean mahaian bilduta. AIURRI

emakumeekin eta mutil gazteekin beste bi talde sortu genituen". Gutierrezek denetariko garaiak bizi izan ditu 46 urteko ibilbidean, eta haiekin alderatzeak eragiten dio poztasuna. "Behin, jokatzeko bost talde osatu genituen, baina kluba zuzentzeko hiru pertsona besterik ez ginen prestatu. A ze lanak! Denetik egin behar izan genuen orduan: lehen-dakari, zuzendari batzordekide, diruzain, entrenatzaile, errifasaltzaile... Atzean geratu dira bizipen haiek, garai oparoa bizitu du klubak azken urtetan, ideala; elkarren artean izugarri ondo eramaten den familia baten antzera funtzionatzen du. Nolanahi ere, iragana ezagututa, ez zait joaten burutik *krak* egin dezakeela egunen batean".

Asun Baztarrikak eta Joxean Otañok nabardura sartu nahi izan zuten, garai bakoitzak bere zailtasunak izaten dituela zehaztuz. "Izugarri hazi da kluba eta asko hobetu dira gauzak antolaketa lanetan, baina gero eta zailagoa jartzen ari zaigu, erakundeetatik jartzen zaizkigun esijentzia eta burokraziaren erruz. Boluntarismotik eramaten dira kirol klubak, baina badi-rudi profesionaletu nahi dela".

Irekia neskontzat eta gazteentzat

Ia mende erdiz, milaka izango dira Leizaran taldearen elastikoa jantzi duten gazteak, neskak eta mutilak. Izatez ere, ikuspegi elitista edo garaipenekiko obsesioa alboratu, eta gazteek kirola taldean eta giro jatorrean praktika dezaten izan da Leizaranen filosofia hasieratik, eta horri eusten dio egun ere, taldeko ordezkariak Kotoi elkartean azpimarratu zutenaz.

Toñi Lopez jokalaria eta entrenatzaile ohiak gehitu zuenez, Andoaingo neska gazteentzat eskubaloia izan da eduki duten irtenbide bakarra urtetan, kirola taldean egin nahi izatera. "Horrela, bakan batzuk izaten ziren kirolari heltzen ziotenak. Erabat aldatu da panorama hori zorionez, eta neska gazteek modurik naturalenean, gogoak agintzen diena hautatzen dute edozein kirol; asko aurreratu du gizarteak, alde horretatik".

Etxeberrietan kirolari omenduak, urtez urte:

- * 2008: Roberto Cabrejas.
- * 2009: Pablo Izagirre, ziklista ohia.

- * 2010: Gurutz Gantzarain, ziklista ohia.
- * 2011: Bea Garcia, Añorga eta Bartzelonako futbolari ohia.
- * 2012: Luke Unanue, pala jokalaria ohia (munduko txapelduna).
- * 2013: Agustin Arrieta, Betis eta Santanderreko futbolari ohia.
- * 2014: Toti Martin, boxeolari ohia.
- * 2015: Rosa Montero, korrikalaria ohia.
- * 2016: Andoaingo lehen emakume futbolariak.
- * 2017: Xabier Bitoria, erremon-te jokalaria ohia.
- * 2018: Pako Agirre, Euskalduna eta Alaveseko futbolari eta entrenatzaile ohia.
- * 2019: Bixente Huizirekin atletismoan 70eko hamarkadan jardun zuten lehen emakume gazteak.
- * 2022: 80 eta 90eko hamarkadetan, Kontxako zazpi bandera irabazi zituzten Ansa, Azpillaga, Artola, Eizmendi, Jaurregi eta Irulegi arraunlari ohiak
- * 2023. 1977an Liga Nazionalera igo ziren Euskaldunako jokalaria.
- * 2024. 'Pakitin' Arnaiz atleta beteranoa.

ETXEBERRIETAKO JAIAK



Kiliki frexko. KILIKI

UZTAILAK 30
ASTEAZKENA
12:00 Jaien hasierako txupinazoa. Ondoren, Haur jolasak.
18:00 Sagardo dastaketa.
19:00 Zumbaton erakustaldia, Etxeberrieta plazan.
20:30 Danborrada auzoko kaleetan barrena.
21:00 Afari-merienda, Miranda pasealekuko zelaian.
22:00-03:00 Dantzaldia: Alaiki taldea eta DJ saioa.

UZTAILAK 31
OSTEGUNA
10:00 XVI. Herri Krosa, Roberto Cabrejas memoriale. Ondoren, Leizaran Eskubaloitaldeari omenaldia.
11:30 Motoen erakustaldia, Beñat Fernandez "Pelontxu"ren eskutik.
12:00 Kantu Kalejira.
13:00 Patata-tortilla lehiaketa.
14:00 Bazkari herrikoia.
20:00 Sardina jatea.
20:00 Toka lehiaketa.
20:00 Kiliki Frexkoren kontzertua. <i>Itze 1</i> diskoaren aurkezpena.



San Inazio egunez izango da krosa, goizeko 10:00tan hasita. AIURRI



lazko "Desapiyua" Adunako gazteen aurkakoa izan zen. Aurtengo gonbidatuak sorabillatarak izango dira. AIURRI

Sanestebanak, Goiburun

Lau eguneko egitarua aurkeztu du Jai Batzordeak, San Inazio egunean hasi eta San Esteban egunez amaituko dena. Tartean, adin-tarte guztiak aintzat hartzen dituzten hamaika hitzordu. Auzora igo eta jaisteko, gainera, bus-zerbitzua izango da

Erredakzioa ANDOAIN

San Inazio egunez hasiko dira jaiak Goiburu auzoan. Hori bai, lehen eguna auzotarrentzat izan ohi da. Baserriz baserri, oilasko biltzaileak elkartu eta, eguerdian, bazkaria egingo dute. Egun osoko ospakizuna izango da, auzoan eta auzotarrentzat egiten dena. Osteguneko igarota, herritarrei eta festazaleei begira, jaiak ostiraletik igandera bitarte luzatuko dira. Aurten, San Esteban egunarekin bat amaituko dira ospakizunak. Tartean, jaietz gozatzeko aukera ugari izango da.

Bus-zerbitzua, asteburu osoan

Andoaingo Udalarekin elkarlanean, Goiburura busez igotzeko eta jaisteko aukera dago. Txalaka pareko bus-geltokitik abiatuko da zerbitzua eta jaitsiera, berriz, jai-eremuko oholtzaren atzealdetik.

Otordu bikainak jaietan

Ostiral eta larunbat gauean, Euskal Parrillak egingo du afaria. Jaiaren hasierako otordurako txartelak dagoeneko salgai daude Txertotan eta Urratsen eta, larunbatekoak, txosnagunean eskuratu behar dira. Horrez gain, larunbat eguerdian eta igande iluntzean plazan afaltzeko aukera izango da. Txosnagunean aukera ederra dago, bertako parrillan prestaturikoa.

Desafioa, larunbat arratsaldean

Iaz, Adunako gazteak izan ziren gonbidatuak. Aurten, berriz, Sorabillakoak. Ikusmina ziurtatuta dago, jakinda, gainera, aurtun Sorabillako jaiak berreskuratzeko bidean direla. Txingak, sokatira, koskol apustua... Larunbat arratsaldean hasita, parte-hartzaileek trebezia erakutsi beharko dute hainbat probatan.

Hitzordu alaia eta bizia izan zen iazkoa eta, aurtun ere, bide beretik joango da.

Erromeria, igande arratsaldean

"Helduak, gazteak, kalekumeak, haurrak... denok!" dantzari jarri nahi ditu Jai Batzordeak. Eta gorputza dantzan jartzeko musikariak honako hauek dira: Oier Baltzola eta Unai Andonegi, Imanol eta Leire Astiasaran eta Elustondo anai-arrebak. Ospakizuna biribiltzeko sagardodastaketa izango da. Aukera aparta da: Gaztañaga, Mizpiradi, Irigoien, Petrategi, Zabala, Aburuza, Altuna, Oialume, Eguzkitza eta Alorrenea. Hori guztia gutxi ez eta auzotarrek egindako patata-tortilla pintxoak dastatzeko aukera izango da. Igandeko arratsaldea, beraz, agendan gorritz azpimarratzeko modukoa da.

GOIBURUKO JAIK



Bus zerbitzua izango da jaietan. AIURRI

UZTAILAK 31

OSTEGUNA

05:30 Oilasko-jokua, baserriz baserri, trikitilariak lagunduta.

15:00 Oilasko jokuko bazkaria. Arratsaldean, plaza dantzak.

ABUZTUAK 1

OSTIRALA

19:30 Jaiaren hasiera emateko suziri eta kanpaiak San Esteban ermitan. Kantujirako taldeak giroa du arratsaldean.

21:00 Auzo afaria frontoian. Txartelak salgai Txertotan eta urratsen, hilaren 27ra arte. Helduen menua, 30 euro. Haurrena, 15.

23:30-02:30 Kontzertua: Gabezin.

Bus zerbitzua: 19:00-21:00; 23:00-04:00. Geltokia: Txalaka.

ABUZTUAK 2

LARUNBATA

11:30 Mus-lehiaketa plazan.

12:00 Zapotxin pailazoa.

Plazan bazkaltzeko aukera.

17:00 Desapiyua: SEGA-Sorabilla.

17:30 Euskal Garagardoak Iker Etxebesteren eskutik.

18:30 Zuttik elektrotzaranga.

21:00 Afaria, plazan. Txartelak, txosnan salgai: 28 euro.

00:00-03:00 Erromeria: Olgetan.

Bus zerbitzua: 11:00-15:00; 16:30-21:00; 23:30-04:00. Geltokia: Txalaka parean.

ABUZTUAK 3

IGANDEA

12:30 Meza eta Alberto Agirre abesbatza.

13:00 Goiburuko pala txapelketa.

17:30-20:30 Erromeri maratona.

17:30-20:30 Sagardo dastaketa eta patata-tortilla pintxoak.

Bus zerbitzua: 11:30-15:00; 17:00-21:00; 22:30-00:30. Geltokia: Txalaka parean.





Binakako toka txapelketa mistoa izango da aurtengoa. AIURRI

Abuztuan, Buruntza jaietan

Andra Mari egunean hasi eta San Roke egunean amaituko dira jaiak Buruntza auzoan. Aurten, asteburuarekin bat egingo dute ospakizunek. Dantza, musika, otorduak, antzerki eta magia emanaldi bana... bi eguneko egitaraua osatu dute

Erredakzioa ANDOAIN
Kultur-ekitaldiak tradizio handiko hitzorduekin uztartzen dituzte Buruntzako jaietan. Aroa Blanco eta Maite Lopez "Euskaldungak" antzezlanaren protagonistak dira.

Honatx, ikuskizunaren aurkezpen-txartela: "Euskaldunaren lehen ezaugarria, euskalduntasuna da. Zer esango dute euskaldun berri batek eta euskadun zahar batek euskarari buruz? Euskararekin duten erlazioaz?

Bere istorioaz? Isteria? Historia? H-rekin edo gabe? A itsatsia dauka?". Ospakizunei amaiera emateko Asier Kidam mago ezagunak saioa egingo du Gaztañaga sagardotegiaren kanpoaldean.



Aroa Blanco eta Maite Lopez. KULTURKLIK



AsierKidam magoa. KIDAM

BURUNTZAKO JAIK



Elustondo anai-arrebak, iazko jaietan. AIURRI

ABUZTUAK 15 OSTIRALA

Hitzorduak, Gaztañaga sagardotegiaren kanpoaldean.

19:30 Taulelak Antzerki taldearen, eskutik: "Euskaldungak" antzezlan.

20:30 Patata-tortilla eta postre lehiaketa.

21:30 Erromeria: Olazabal eta Larrañaga.

ABUZTUAK 16

LARUNBATA

SAN ROKE EGUNA

10:00 Txistularien kalejira auzoan barrena.

10:30 Meza auzoko hildakoen alde Buruntzako San Martin eliza zenaren azarnategian.

11:00 Burdina taldeak Buruntzan buruturiko ekimenen berri emango du.

11:30 Soka dantza, txistularien eta Urki dantza taldeko kideen eskutik, Gaztañaga sagardotegiaren kanpoaldean.

12:00 Txistularien emanaldia.

12:30 Binakako toka txapelketa mistoa. Haur eta umek ere parte har dezakete.

13:15 Bertsolariak: Aitor Mendiluze eta Sustrai Colina.

14:00 Bazkaria Gaztañaga sagardotegian. Aitor Mendiluze eta Sustrai Colina bertsolarien saioa. Bazkarian izen-ematea: abuztuaren 12a baino lehen Gaztañaga sagardotegira deituta: 943 59 19 68.

18:00-20:00 Erromeria: Elustondo anai-arrebak, Gaztañaga sagardotegiaren kanpoaldean.

20:00 Asier Kidam magoaren ikuskizuna.





Beñat Salbador eta Iñaki Lopez de Munain, aurtengo txapeldunak. AIURRI



Lontxo Santa Cruz eta Jon Jauregi, txapeldun-ordeak. AIURRI

Emozioz beteriko finala, Goiburun

Goiburuko pilota-txapelketa xarma berezikoa da pilotazalearentzat, giro ederra sortzen baita partaideen eta ikusleen artean. Kirol-mailari dagokionez, Salbador-Lopez de Munain bikoteak Santa Cruz-Jauregi mendean hartu zuen

Xabier Lasa ANDOAIN
Goiburuko pilota-txapelketa
Finala:

22 Beñat Salbador-Iñaki L. Munain.
17 Lontxo Santa Cruz-Jon Jauregi.

3-4. postuak:

22 Jurgi Mujika-Oier Belaunzaran.
20 Koldo Ponce-Ion Beloki.

Ate joka zetozen gazteak eta aurten txapela irabazi dute. Beñat Salbador pozarren zegoen eta, era berean, nekatuta: "Majo su-frituta irabazi dugu. Finalau-rrekoa ere antzekoa izan zen eta, azkenerako, lehertu arte segi eta segi". Izan ere aurkari gogorak zituzten parean. Iñaki Lopez de Munainen ustean, "Lontxok eta Jonek ikaragarri joka-

tu dute, txapel ugari dituzte eta haiei bakarrik irabazteagatik txapel honek balio handia du".

Bertsoa, Juantxoren omenez

Ion Belokik bertso ederra bota zien Juantxo Lopez de Munainen etxekoei, haren izana eta ondo-rengoen indarra bertso bakarrean lotuz:

*Ekintza xumez loratu ohi da
pausurik pausu herria
Juantxok auzoai hartua zion
dotore asko neurria
pelotariei laguntza emanez
beti ezpainetan irria
nahizta sentitu joan zarenean
hutsune ikaragarria
utzi zenuen hazi hartatik
badator kimu berria.*



Sari-banaketa ekitaldian berriki zendu den Juantxo Lopez de Munain oroitu zuten. Etxeko guztiak elkartu ziren pilotalekuan. AIURRI

Donosti Cup, esperientzia bikaina futbolari gazteentzat

Eskualdeko jokalaria ugarik parte hartu dute txapelketa ezagunean. Talde berrien aurka aritzeko aukera ona da

Erredakzioa URNIETA
Askoren artean, bi talde nabarmendu dira. B15 mailan, Hain Gipuzkoa multzoan, Urnieta KE finaleraino iritsi zen. Parez pare zuten Madril aldeko Jamboree Sports taldea eta 0-4 galdu zuten. Finaleraino iritsi eta talde be-

rien aurka jokatu izana geroan ere gogoan hartuko duten esperientzia izango da.
B19 mailan, bestalde, Grupo Carza multzoan, 5-4 galdu zuen Urnietak finalaurrekoan. Zurriola A izan zen garaile, baita finalean ere.



Jurgi Garcia eta Pablo de Torres, finala jokatu ostean. UKE



Urnieta KE klubeko hainbat taldek parte hartu dute aurtengo Donosti Cup txapelketan. AIURRI



BURUNTZALDEA IKI

Udako Euskal Herriko Txapelketa

Uztaileko lehen asteburuan Euskal Herriko junior eta absolutu mailako txapelketa izan zen Gasteizko Mendizorrotza kiroldegian. Bertan, Buruntzaldea IKI taldeko Miren Sarobe, Mayi Gorostegi, Oihan Matute, Kimetz de la Cruz, Mario Amantegi eta Ibon Elolak hartu

zuten parte. Matute andoaindarraren lana nabarmendu du klubak: "Bular erako 50, 100 eta 200 metroetan eta lau estiloetako 200 metroetan 16 urteko errekorrak ezarri ditu klubean eta, gainera, bular erako 100 eta 200 metroko probatan marka onenak ezarri ditu".



BUSTO

Universe Ms Figure PRO

Maddi Busto Niño urnietarra kategorian garaile izan da. Bertan lehiatzen diren kideek muskulatura ikusgarria, definitua eta simetrikoa erakutsi behar dute, beheko zein goiko gorputz-adarrak modu orekatuan landuta. Hori horrela simetria, oreka muskularra, tonua, proportzioa baloratzen dira, baita ohol-tza gaineko mugimenduen dotorezia zein jarrera ere.



TOMASENA

Domina-sorta eskuratu du

Ibilbide oparoa osatzen ari da Txaro Tomasena urnietarra. Berriki, lau domina eskuratu ditu Kanaria Handiko Las Palmas hirian antolatutako Espainiako Igeriketa Txapelketan: 75 urtetik gorako kategorian, urrezko bi domina irabazi ditu (100m eta 200m) eta zilarrezko bi gehiago (50m bizkarra eta 400m libre).



Urtzi Urkizu kazetaria, Martin Ugalde Kultur Parkean, Andoainen. AIURRI

"Errealitate anitza islatzen du Midasek"

URTZI URKIZU BERRIAKO KAZETARIA

2025eko Midas saria jaso du. Vipolze herrixkan (Eslovenia) egin zuten sari-banaketa ekitaldia, joan zen ekainaren 13an

Xabier Lasa ANDOAIN

Hizkuntza edo hiztun gutxituen egunkari eta hedabideak biltzen dituen elkarte da Midas. Europan milioika hiztunetara iristen diren 13 hizkuntza gutxituetako 28 egunkari biltzen ditu elkarteak. Martxelo Otamendi Berria egunkari zuzendari ohia elkartearen lehendakari izendatu dute.

Urkizuz gain, Milan Rakovac dokumentalista eta kazetari kroaziarra jaso zuen Midas elkartearen banatu ohi duen beste saria, Otto von Habsburg izena duena.

Hizkuntza gutxituetan egiten den kazetaritza-lanetan erreparatu izanagatik eman zioten saria. Gurean horren ezagunak ez ditugun hainbat hizkuntza gutxituren errealtateak ezagutarazteko erreportaje mordo egin izan du Urkizuk; hala nola, kurduera (Kurdistan), maoriera (Zelanda Berria), frisiera (Her-

beeherak), korsikera (Frantzia eta Italiako estatuetan), galegoa eta katalana (Espainiako Estatuak), gaelikoa (Irlanda), samiera (Laponia), kinyangaera eta kihundera (Kongo)...

Egun batzuk igaro dira saria jaso zenuenetik. Zer nolako sentsazioekin itzuli zinen Italiako iparraldean ospatu zen ekitalditik?

Oso pozgarria izan da bizipena. Euskaraz idazten ari zara egunerokotasunean, eta ez duzu imajinatu ere egiten Europa mailako sariren bat jaso zenezakeen sekula. Poztasuna are handiagoa izan zen niretzat, jakinda nork proposatu zuen hautagaitza, Jakob Volgger ikerlariak, hain zuzen ere. Euskarak, ladinera eta goi sorabierak iraun dezaten komunikabideek duten garrantzia aztertu ditu Hego Tiroleko ikerlariak berriki.

Izan al du oihartzunik sariak?

Euskal Herrian izan du, eta Europako hedabide batzuetan ere baietz esango nuke. Esloveniako Primorske Novice hedabidean albiste izan zen zenbait egunetan saria eta Martxelo Otamendi Midas elkartearen presidente izateko izendatu izana; albiste horiek euskarazko komunikabideak bistararazi egin zuten.

Ekitaldian, hitzartzean, metafora zeraman bertso bat kantatu nuen. Keinu horrekin komunikabide txikien aldeko aldarria egiteaz gain, bertsolaritzaren fenomeno sozialaren gaineko azalpenak eman nituen; horrek ere arreta piztu zuen zenbait hedabideetan.

Bestalde, sariarekin zeharka lotuta badoa ere, deigarria izan da Milan Racovac beste sarituarri egin nion elkarrizketak hainbat hizkuntzetan izan duen za-

balkundeak; Racovac erreferentzia da Europan antifaxismoko gaietan.

Europako beste zenbait errealtateekin topatzeko parada edukiko zenuen, eta zer kontrastatua izango zenuen hedapenaren, teknologiaren, bitartekoen, finantziarioaren, ikusgarritasunaren eta beste hainbat alderdien ikuspegitik.

Egia da errealtate anitza islatzen dutela Midasen dauden hedabideek. Batzuk, kopuruz oso handiak ez izan arren, portzentaiaetan, izugarritzko eragina daukate non argitaratzen diren kontuan hartuz gero. Egunotan, esate baterako, Finlandian kokatu arren, suediera hizkuntza nagusia den Aland uharteetako kazetari bati elkarrizketa egin diot; bere hedabideak adimen artifizialekin eta teknologiek lotutako kamerekin kirol amateurreko zuzeneko emankizunak egiten dituzte, oso langile gutxiarekin. Beren egunkariak, Aland uharteetako komunitate osoko herriartarren %28ak erosten du.

Oro har, Italiako egonaldian paperezko egunkari asko ikusteko aukera izan dugu, batzuen eta besteen edukia, diseinuak... Eta esango nuke, batez besteko alderaketa horretan, Berria ez dabilela horren gaizki. Nolanahi ere, holako topaketetatik asko ikusita eta ikasita itzuli daiteke bat etxera, autokonplazentziarik gabeko jarrerarekin bazoaz behintzat.

Saria jasotzean, esan zenuen hil ala bizikoa zela hizkuntza gutxituetako komunikabide guztien iraupena, eta horretarako, behar-beharrezkoa dela erakunde publikoen bultzada.

Ez dago zalantzarik horretan. Gehienek badute instituzioen laguntza, baina salbuespentzat jo genezake galizieraz aritzen den Nos Diario egunkariaren egoera; larria da haiena, salagarria. Xuntaren aldetik ez du sosarik jasotzen, eta publizitate ere apenas jasotzen du ezer; argia da PP alderdiaren aldetik jasaten ari den boikota, haren ildo politikoa jarraitzen duten hedabideekin ez bezala. Paradoxikoa da Galizian hizkuntza ofizialean aritzen den hedabideak tratatu hori jasatea, eta aldez, Europako zenbait lurraldeetan ofizialak ez diren hizkuntzetako hedabideek, diru laguntzak jasotzea. Alde horretatik, Martxelo Otamendik, Midas elkartearen lehendakari izendatu berriaren argi esan zuen premia hori dela

elkartasunezko dinamikaren bat jartzea Nos Diario babesteko.

Finantziario publikoa hil ala bizikoa zela aipatu nuenean, komunitate batentzat bere hizkuntzan jardungo duen komunikabideak edukitzeak daukan garrantzia azpimarratu nahi izan nuen; berebiziko balioa baitu bere hizkuntzan jaso ahal izatea bere egunerokotasuna eta kultura.

Euskal Herrira etorrita, egun, bada komunikazio esparru sendo bat, urtetako lanketaren ondorioz lortu dena. Baina geure buruari egingo bagenio galdera, alegia, zer nolako Euskal Herria irudikatuko genuke gaur bertan, esparru sendo hori falta izan bagenu? Are gehiago, jakinik egungo gizarteetan komunikazioak daukan garrantzia?

"Txoria hodei artean" liburua kaleratu zenuen 2024ko martxoan, ETBren iragana eta geroa aztertzen dituzten 35 aditurekin egindako elkarrizketekin. Geroztik, zer nolako erantzuna jaso duzu irakurleen aldetik?

Hainbat aurkezpen, hitzaldi eta solasaldietan hartu dut parte liburua aitzakiatzat hartuta, eta benetakoa da ETBren gainean dagoen kezka. Kontrol politikoa badagoela uste da; jende askok partekatzen duen analisia da Jaurilaritzak izendatzen dituela ETBko arduradunak. ETBko langileekin egindako inkesta batek ere berretsi egiten du uste hori: %75ak onartzen duela informazioa Jaurilaritza osatzen duten alderdietara lerrokatzen direla. Esku-hartze politikorik gabeko hedabide independentea amesten du jendeak.

Onartzen da bere sorreran euskara eta euskal kultura sustatzea helburu zuen egitasmo horrek bat egin zuela herriartarekin eta euskararen normaltasun prozesuarekin, baina egun, sentsazio nagusia da hori ez dela gertatzen ari. Aldatu Gidoia ekimenak edota Lanarteanek (Euskararen Langile Profesionalek Elkarteak) maiz kritikatu izan dute Eusko Jaurilaritzaren jokabidea, EITBk euskara eta euskarazko telebista eta irratiak bigarren mailan utzi izanagatik.

Eta serio hausnartu beharko da, noizbait, ETBekin hartuta, erabaki politikoez zer nolako eragin kaltegarria eduki duten euskararen normalizazioan eta erabileran.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ZINEMA

ANDOAIN Uda zinema kalean
"Kung-Fu panda 4". Po Dragoi
Gerlari berriaren oinordekoa bilatzen
ari da, eta bitartean aurkari berri bati
egin beharko dio aurre:
"Kameleoia".
Uztailak 17, osteguna.
19:00. Golekoplaza. Gaztelaniaz.

TAILERRA

ANDOAIN Zianotipia tailerra
Maddi Trutxuelo diseinatzaile
grafiko eta argazkilariaren eskutik.
Uztailak 19, larunbata.
11:00-14:00 / 16:30-18:30, Urigain.

ZERBITZUAK

URNIETA Udal pilotalekua
Uztailean hasita, udan udal
pilotalekua zabalik izango du.
Erabilera librekoa izango da, beraz.
Urnietako pilotalekua.
Ordutegia: 09:00-21:00.

ANDOAIN Bisitarien Etxea
Leitzaran Bisitarien Etxea zabalik
egongo da udan.
Bisitarien Etxea, Otieta.
Ordutegia: 09:30-18:30.

KONTZERTUA

ANDOAIN Kiliki
Disko berriaren aurkezpena.
Uztailak 31, osteguna.
20:00, Etxeberrieta.



"Andante" maskaradun antzerki ibiltaria da. MARKELIÑE

ANDOAIN Kale antzerkia Andoaingo kaleetan

Trapu zaharra
"La ultima, y nos vamos", konpainiaren kale-antzerkia.
Uztailak 18. ostirala. 19:30, Zumea plaza.

La Pez
"Plaza", konpainiaren antzezlanak.
Uztailak 19, larunbata. 20:00, Goikoplaza.

Markelīne
 "Andante", maskaradun antzerki ibiltaria.
Uztailak 20, iqandea. 12:30, Zumea kalea-Plaza Morea.

IPUINGIRO

ANDOAIN Kamishi-Jai
Intui teatro konpainia.
Uztailak 22, asteartea.
18:30, Leizaur parkea.

TXAPELKETA

ANDOAIN 3x3 basket mixtoa.
Antolatzailea: Zurrut saskibaloia.
Uztailak 26, larunbata.
09:00-21:00, Zumea plaza.

**Aiurri.eus
webgunea,
udako
albistegia**

Datozen asteetan ez da astekaria argitaratu emango, baina webgunea martxan izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Urteko 42 astekari argitara ematen ditu Aiurrik eta, Andoaingo eta Urnietako irakurleek ondo dakitenez, udan izan ohi da ete-naldia. Datorren astean hasita, beraz, eta irailaren 5a bitarte, ez da astekaririk izango. Horrek ez du esan nahi informaziorik emango ez denik: paperean, ez, baina sarean jarraipena izango du Aiurriko lantaldearen emariak: albisteak, jaien jarraipena, agenda... Bertain nahiz kanpoan dirententzat, albiste ugari argitaratuko da uda honetan, Aiurri.eus webgunean.

Ezinbestean jaiak tarte berezia izango du, zehazki, Andoaingo azuuneetakoak: Etxeberrieta, Goiburu eta Buruntza, hurrenez hurren, jaietan murgilduko dira datozen asteetan. Eta, irailaren hasierarako, Sorabillako jaiak berreskuratzeko lanean ari da gazte taldea.

Ohi bezala, Aiurrin aurkitu ahal izango dira argazki-bildumak, bideoak, agenda ataleko hitzorduak...

Beraz, kanpoan ala bertan izan, gertuko albisteen jarraipena egiteko aukera proposa aurki daiteke Aiuurri.eus webguneko hainbat ataletan.

Uda on, irakurle!

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Kattalin
Uztailaren 18an
Kattalinek 9 urte
beteko ditu.
Zorionak eta muxu
haundi bat
etxekoan partetik.




ANDOAIN
Zorionak Ane!
Uztailaren 31n,
12 beteko dituzu!
Ofizialki
nerabezeroaren
atarian zaude...!
Egun zoragarria
pasa eta muxu
potolo bat jaso
guztionez partetik!



ANDOAIN
Amona Miren
Zorionak Amona
Miren, zure
urtebetetzean!
Ondo pasa eta
muxu handi bat.



ANDOAIN
Zorionak bikote
Abuztuaren 2an
Onintzak 9 urte
egingo ditu eta
10ean Ainarak 41.
Muxuak etxekoan
partez!



ANDOAIN
Itxaso eta Eñaut Berrueta
ZORIONAK BIKOTE!! Uztailaren 23an Itxasok
9 urte eta uztailaren 27an Eñautek 13 urte
beteko dituzte! Ondo pasatu oporretan eta
urteak behar dan bezela ospatu, muxu
erraldoi bana amon-aitonan eta izeba-osaban
partez!



URNIETA
Izaskun
Uztailaren 22an
hamar urte
beteko dituzu.
Egun oparoa igaro
eta gozatu
etxekoekin.

sukia

JAI-ALAI SUMMER SEASON

Kings Edition vol.3

GALARRETA

JAI ALAI



UZTAILAK 17 OSTEGUNA

16:30ean

LEHEN PARTIDA (ORIAMENDI ERREMONTE TXAPELKETA)

SUSPERREGI • ZUBIRI vs

GOIKOETXEA V • AIESTARAN VI

2. PARTIDA (KUSKIZUN PARTIDA)

JABALERA • BARRENETXEA IV vs

EZKURRA II • LARRAÑAGA

3. PARTIDA (SUMMER SEASON)

AZPIROZ • ANSA II vs

ALDABE • JUANENEA














***Mendira,
hondartzara,
festara...***



***Uda honetan ere
zurekin eramango
gaituzu***



Okm:
*batzen gaituen
distantzia*